

Kometa



materiala

- Organiko zabor poltsa bat
- Zelo
- 4 zotz luze
- Soka
- Artaziak
- Erregela
- Errotulagailua

eskulana



azalpena

1. Etxean dugun organiko zabor poltsa bat hartu.
2. Ertz guztiak moztuko ditugu, poltsa zabaltzeko alde
3. Erregela bat hartuz, 37cm x 37cm neurtzen duen karratua marraztuko dugu. Ondoren, marraztik moztu.
4. Kometa apaintzeko, eskulana egiten hasi garenean soberan gelditu den plastiko zati bat erabiliko dugu. Honekin, kometaren isatsa egingo dugu.
5. Zotzak erabiltzeko momentua da. Zelo erabiliz, bi zotz hartu eta elkarrekin itsatsiko ditugu, makil luze bat eginez. Gelditzen diren beste bi zotzekin gauza bera egingo dugu. Guztira bi makil luze izango ditugu.

Poltsa, guri begira erronbo irudian kokatuko dugu eta sortu ditugun bi makil luzeak, gurutze moduan itsatsiko ditugu.

Horizontalki itsatsita dagoen makilari kurbadura pixka bat eman beharko diogu.

Soka bi leku desberdinetan lotuko dugu; bi makilak elkartzen diren lekuan eta pixka bat beherago.



Bidali zuen argazki edo bideoak 688 725 738 zenbakira edo ludoteka@soraluze.eus helbidera